

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

96/2025 Foru Agindua, uztailaren 31koa, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza saileko Foru Diputatuarena, lehiaketa bidezko 2025-2026 ikasturteko dirulaguntzen deialdi publikoa onesten duena, helduen euskalduntzea sustatzeko xedez

Arabako Foru Aldundiko Euskara Foru Zerbitzuak, aurrera daramatzan jardueren artean, egoki iritzi dio helduen euskalduntzea sustatzeko 2025-2026 ikasturterako laguntzen deialdia egiteari.

Laguntza ekonomiko hori HABEk homologatutako Arabako edo Trebiñuko enklabe euskaltegien 2025-2026 ikasturterako, A2, B1, B2 eta C1 mailetako eta 190 ordu edo gehiagoko autoikaskuntza-ikastaroen matrikulazio prezioa gutxiagotzeko izateko proposatzen da, eta haien hartzaileak Araban edo Trebiñuko enklabeen erroldatutako adin nagusiko pertsonak dira.

Arabako Foru Aldundiaren 2025eko ekitaldiko aurrekontuan "Euskalduntzeko laguntzak ikasleentzat/ Ayudas al alumnado para euskaldunización" 25201. G/335251/48000251 aurrekontu-partida dago, 100.000,00 eurokoa, erreferentziazko deialdia finantzatzera bideratua.

Halaber, proposatzen da HABEk homologatutako euskaltegiek eta euskarako autoikaskuntza zentroek, euskaltegien erregistroan inskribatuta badaude eta eskatzen badute, erakunde laguntzailea izatea lortu ahal izatea, xedapen honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona matrikulatuen eskabideak kudeatu eta izapidetu ditzaten euren.

Horretarako, beharrezkoa da ezartzea euskara ikasteko ahalegina egiten duten pertsonen laguntzeko dirulaguntzek bete beharreko berariazko esparru arautzailea.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dauzkadan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehen. Onespena ematea helduen euskalduntzea sustatzeko xedez lehiaketa bidezko 2025-2026 ikasturteko dirulaguntzen deialdi publikoari. Deialdi publiko hori 2025eko ekitaldian indarrean egongo den foru agindu honi erantsi zaio I. eranskin (deialdia) eta II. eta III. eranskin (inprimakiak) gisa, 100.000,00 euroko zuzkidura batekin, eta Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuak, Diputatu Nagusiaren Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onesten dituenak (ALHAO, 84. zenbakia., 2020ko uztailaren 27koa) xedatutakoak arautuko du.

Bigarrena. Gastu hau babesten duen aurrekontu-partida Arabako Foru Aldundiaren 2025eko gastuen aurrekontuko 25201. G/335251/48000251 "Euskalduntzeko laguntzak ikasleentzat/Ayudas al alumnado para euskaldunización" da.

Aurrekontuan hasiera batean jasotako kopurua handitu egin ahalko da, aurrekontuko baliabide erabilgarrien arabera, ehuneko 15eraino gehienez.

Hirugarrena. Onestea eta baimentzea 3.000,00 euroko gastua eta haren balizko zabalkuntzak. Erakunde laguntzaileen alde 2025erako ezarri den konpentsazioa 3.000,00 eurokoa da, eta Arabako Foru Aldundiaren 2025eko gastu aurrekontuaren partida honen kontura egingo da: "25201. G/335251/22799250 "Plan estrategikoa garatzea/ Desarrollo plan estratégico" aurrekontu-partida. Konpentsazio hori deialdia ebatzi ondoren ordainduko da, eta kudeatu eta onartutako matrikula bakoitzeko 3,00 euroko konpentsazio ekonomikoa ezarri da.

Laugarrena. Organo eskudunak emango du, Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena aztertuta, eman beharreko ebazpena, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Bosgarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko dagokion organoari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 31a

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza saileko Foru Diputatua
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE

Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria
JOSEBA KOLDO PÉREZ DE HEREDIA ARBÍGANO

I. ERANSKINA

Helduen euskalduntzea sustatzeko xedez 2025-2026 ikasturtean lehiaketa bidez ematen diren dirulaguntzen deialdia

Oinarriak

Lehenengoa. Xedea eta helburua

Deialdi honen xedea 2025-2026 ikasturtean Arabako edo Trebiñuko enklabe euskaltegietan matrikulatzen diren eta Araban eta Trebiñuko enklabean errolatuta dauden 18 urtetik gorako pertsonen euskalduntzea sustatzea da, Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuak, Diputatu Nagusiaren Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onesten dituenak (ALHAO, 84. zenbakia, 2020ko uztailaren 27koa) xedatutakoaren esparruan.

Dirulaguntza hauen helburua da A2, B1, B2 eta C1 mailetako matrikularen prezioa gutxiagotzea 2025-2026 ikasturterako, Arabako edo Trebiñuko enklabe euskaltegi HABEk homologatuetan.

Bigarrena. Aurrekontu egozpena

Emango diren laguntzen zenbatekoa, guztira, 100.000,00 eurokoa izango da; gehiago ere izan daiteke, kontuan hartuta emango diren dirulaguntzen orotarako zenbatekoa, eta, betiere, aurrekontuan baliatzeko moduan izango diren baliabideen arabera, gehienez ehuneko 15eraino.

Dirulaguntza horiek Arabako Foru Aldundiaren 2025eko gastu aurrekontuko 25201. G/335251/48000251 partidatik ("Euskalduntzeko laguntzak ikasleentzat/Ayudas al alumnado para euskaldunización") emango dira.

Hirugarrena. Onuradunak

1. Onuradunak Arabako edo Trebiñuko enklabe euskaltegi homologatu batean matrikulatu behar du 2025eko urriaren 1a baino lehenago.

Matrikulatzeko orduan, euskaltegiak dagokion deskontua aplikatuko dio modulu bakoitzari, onuradunetz onuradun.

2. Deialdi honetako dirulaguntzak pertsona fisikoek eskatu ahalko dituzte, ezaugarri hauek betetzen badituzte:

- Adin nagusikoa izatea edo 2025ean 18 urte betetzea.
- 2025eko urriaren 1a baino lehenago Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabean errolatuta egotea.
- A2, B1, B2 eta C1 mailetan matrikulatzea Arabako edo Trebiñuko enklabeako euskaltegi HABEk homologatutako batean.

3. Programatik kanpo daude, berariaz, administrazio publikoetan lan egiten duten eskatzaileak, baldin eta euskaraz ikasteko eta trebatzeko ikastaroak HAEK finantzatzen baditu.

Laugarrena. Ikasleek aurkeztu beharreko dokumentazioa

1. Onuradunak 2025-2026 ikasturtean matrikulatzeko unean deialdi hau onartzearekin batera argitaratuko den eskabidea (II. eranskina) bete beharko du. Eskabidea euskaltegietan eta Arabako Foru Aldundiaren web orrian (www.araba.eus edo www.euskaraba.eus) eskuratu ahalko du.

2. Euskararen Foru Zerbitzuak nortasun agiriaren zenbakia, eta errolatzea kontsultatuko ditu. Eskabidea aurkezteak datu horiek ofizioz kontsultatzea onartzea dakar, eskatzailea aurka badago, berariaz adierazi beharko du, horretarako eskabidean dagokion atala betetz. Aurka egoenez gero, eskabidearekin batera NAN, AIZ edo pasaportearen fotokopia eta 2025eko urriaren 1a baino lehenago Araban edo Trebiñuko enklabean errolatuta egotearen ziurtagiria aurkeztu beharko ditu.

Bosgarrena. Erakunde laguntzaileak

1. Erakunde laguntzaileak izango dira HABEk homologatutako euskaltegiak eta euskarako autoikaskuntza zentroak, euskaltegien erregistroan inskribatuta daudenak, erakunde laguntzaileak izatea eskatzen badute, eta zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean badaude.

2. Bat etorri Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 15. artikuluan ezarritakoarekin, erakunde laguntzaileek lankidetzat hitzarmen bat, edo haren luzapen bat halakorik badago, sinatu beharko dute Arabako Foru Aldundiarekin, non arautuko baitira erakunde laguntzaileek beren gain harturiko baldintzak eta betekizunak.

3. Xedapen honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona matrikulatuen eskaerak kudeatu eta izapidetuko dituzte erakunde laguntzaileak. Deialdi honen bosgarren oinarriko dokumentazioa bildu eta, hirugarren oinarrian xedatutako baldintzak betetzen direla egiaztatutakoan, dagokion deskontua aplikatuko dute matrikulan.

Eskabidearen inprimakiak eskatzaileak sinatu beharko ditu, bai eskuz bai sinadura elektronikokoaren bidez (IZENPE, NAN-a elektronikoa, ACA, Camerfirma, Ancert, FNMT). Euskaltegiek bildu eta matrikulatutako ikasleek sinatutako eskabideak Euskararen Foru Zerbitzuan aurkeztuko dira 2025eko urriaren 24ra arteko epean (Probintzia plaza, 5 zenbakia., 3. solairua, 01001 Vitoria-Gasteiz).

4. Euskaltegiek, helbidea edo bankuko datuak aldatu badira, euren datuak eguneratu beharko dituzte Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoaren bidez, zehazki, "Hirugarrenen alta edo aldaketa Arabako Foru Aldundia" izapidea, hain zuzen ere (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/alta-modificacion-terceros-diputacion-foral-de-alava>).

5. Euskararen Foru Zerbitzuak, ebazpena eman aurretik, ofizioz egiaztatuko du euskaltegiak euren zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dauden.

Seigarrena. Erakunde laguntzaileek sartzeko eskabideak aurkezteko epea

Matrikulatzeko laguntza programa honetan erakunde laguntzaile sartu nahi duten euskaltegiek hogeitazeguneko epean eskatu beharko dute, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, nolanahi ere, telematikoki aurkeztu beharko dute: pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, elkargoko kide derrigorrez egitea eskatzen duen jarduera profesional bat egiten dutenek eta jarduera horretan jardunez egiten dituzten izapideetarako eta administrazioarekin harreman elektronikoak izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenek. Horretarako deialdi honekin onartutako inprimakia (III. eranskina) bete eta eskabidea bidali beharko diote Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzako Euskararen Foru Zerbitzuari Arabako Foru Aldundiaren erregistro elektronikoko komunaren bitartez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/tr-registro-electronico-comun>) edo beste administrazio publikoen erregistro elektronikoen bitartez.

Euskararen Foru Zerbitzuak eskabidea aztertu eta ofizioz egiaztatuko du HABEk homologatua den eta dagokion erregistroan inskribatuta dagoen. Orobat, euskaltegi interesdunak eskabidea aurkeztuz gero, organo kudeatzaileak haren baimena edukiko du zerga administrazioek eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak eskatzeko.

Euskararen Foru Zerbitzuak harremanetan jarriko da euskaltegi interesdunarekin eta, erakunde laguntzailea izateko baldintzak egiaztatutakoan, lankidetzak hitzarmena formalizatuko da.

Zazpigarrena. Deialdian sartzen diren moduluak eta dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa

Modulu presentzialak

Emango den laguntzaren zenbatekoa hirutara banatzen da, ikastaroaren orduen arabera:

1. 248-400 orduko moduluak, 135,00 euro.
2. 401-600 orduko moduluak, 180,00 euro.
3. 601 ordu baino gehiagoko moduluak, 330,00 euro.

Autoikaskuntza moduluak

Hasierako mailak diruz lagundu ahalko dira (A2, B1, B2 eta C1):

4. 190 ordu edo gehiagoko autoikaskuntza moduluak: 135,00 euro.

Zortzigarrena. Instrukzio organoa

Arabako Foru Aldundiko Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzako Euskararen Foru Zerbitzuak izango du prozeduraren instrukzio eskumena.

Bederatzigarrena. Eskabideak aztertu eta ebaztea

1. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan aztertu eta eman edo ukatuko dira laguntza ekonomikoak.

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak, egokia deritzon kasuetan, datuak edo aurkeztutako dokumentazioari buruzko argibideak eskatu ahalko ditu.

2. Eskaera eta jaso beharreko zenbatekoen kopurua dela eta, dirulaguntzetan eman beharrekoa deialdiaren diru zuzkidura baino gehiago balitz eta, ondorioz, laguntzak murriztu egin beharko balira, murrizketa hori heinean egingo litzateke onuradun guztien artean.

3. Organo eskudunak emango du ebazpena, Euskararen Foru Zerbitzuak proposatuta, sei hilabeteko epean gehienez ere. Epe horretan esanbidezko ebazpenik hartzen ez bada, interesa duten erakundeek ezetsitzat jo ahal izango dute eskaera.

4. Esleipen ebazpenean zer eskatzaileri eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta arrazoituta adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

5. Kontuan izanda urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 45. artikuluan xedatutakoa, dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpena ALHAOn argitaratuko da, eta jakinarazpen ondorioak izango ditu horrek.

6. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du; beraz, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegietan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, nahi izanez gero errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Hamargarrena. Laguntzak ordaintzea

Matrikularen zenbatekoari aplikatuko zaion deskontu bat denez, laguntzak erakunde laguntzaileei ordainduko zaizkie. Lehenago, haiek matrikularen prezioetik kenduko dituzte zenbatekoak, onuradun izateko baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren.

Ordainketa bakarra egingo da laguntzak emateko ebazpena eman eta gero.

Ordainketa ikasleek Arabako Foru Aldundiarekin egiteke dituzten prozedura betearazleen ondorioz konpentsatzen bada, Euskararen Foru Zerbitzuak egoera horren berri emango dio eragindako euskaltegiari, eta konpentsatutako kopurua erakunde laguntzaileari ordaindu beharreko guztizko kopurutik kenduko da. Kasu horretan, interesdunak aplikatutako deskontua itzuli beharko dio euskaltegiari. Laguntza eskabidea aurkezteak euskaltegiari egoera horren berri ematea onartzea dakar.

Hamaikagarrena. Laguntzak aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, edozer dela ere, edozein erakunde publiko edo pribatuk gauza bererako emandako laguntzak edo dirulaguntzak lortzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu egin daiteke, eta dirulaguntza itzuli beharra ere gerta daiteke.

Hamabigarrena. Laguntza galtzea

Dirulaguntza eman duen organoak edo, hala behar denean, entitate laguntzaileak egiten dituen egiaztapen jarduketa guztiak onartu behar dituzte onuradunek, bai eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eta kontrol organo eskudunek finantzak kontrolatzeko eta egiaztatzeko egiten dituztenak ere. Horrelakoetan, eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute.

Foru administrazioak, dirulaguntza ematearen ondorioz erakunde laguntzaileei eta onuradunei ezarritako betebeharrak eta haiek hartutako konpromisoak betetzen ez badira, horrek helburuak lortu, jarduera egin, proiektua gauzatu edo dirulaguntza ematearen oinarri den portaera hartzeko moduari eragiten badio edo hari badagokio, edo dirulaguntza horretarako eskatzen diren baldintzak faltsutuz edo galaraziko zutenak ezkatutuz lortu bada, jasotako kopuruak itzuli beharko dira eta dirulaguntza ordaindu den unetik hura itzuli behar dela erabakitzen den egunera arte sortutako berandutze interesak eskatuko dira.

Era berean, jasotako dirulaguntzak itzuli egin beharko dira, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, xedatzen dituen kasuetan.

Zuzenbide publikoko diru sarrera gisa hartuko da onartutako dirulaguntzak itzultzea, eta abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauaren, Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzkoaren, II. Tituluan, I. kapituluan xedatutakoaren arabera kobratuko da hura.

Hamahirugarrena. Garapena

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko diputatuak deialdi hau garatzeko beharrezkotzat jotzen diren ebazpenak emango ditu, eta, beharrezkoa bada, dirulaguntzaren zenbatekoa handitzeko ebazpena emango du.

Hamalagarrena. Interpretazioa

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak ebatziko ditu deialdi hau interpretatzean sor daitezkeen zalantzak.

Hamabosgarrena. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Deialdi honetako dirulaguntzekin batera, organismo edo erakunde publiko nahiz pribatuek, estatuko nahiz nazioartekoek, jarduera edo programa bererako esleitutako dirulaguntzak ere jaso ahal izango dira, betiere dirulaguntza horren zenbatekoa ez bada, bakarka nahiz beste dirulaguntzekin batera, matrikularen kostua baino handiagoa.

Hamaseigarrena. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn eta Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzaren webean argitaratuko da, eta gizarte hedabideen bidez ahalik eta gehien zabaltzen saiatuko da.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Helduen euskalduntzea sustatzeko 2025-2026 ikasturterako laguntza ekonomikoa eskatzeko inprimakia.

2025

Solicitud de ayuda económica destinada a incentivar la euskaldunización de personas adultas, curso 2025-2026

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saila
Euskara eta Gobernu Irekiaren zuzendaritza

Departamento de Igualdad, Euskera y Gobernanza
Dirección de Euskera y Gobierno Abierto

II. ERANSKINA ■ ANEXO II

Administrazioak betetzeko
A cumplimentar por la Administración

Eskaera zk. ■ N° Solicitud

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE ⁽¹⁾

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

☐ NAN
DNI

☐ AIZ
NIE

☐ Besteren bat
Otro

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sexua ■ Sexo

☐ Emakumea
Mujer

☐ Gizona
Hombre

☐ Ez
binarioa
No binario

Izena ■ Nombre

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra ■
Hizkia

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Lurralde Historikoa ■
Territorio Histórico

Udalerrria ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

Telefona ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

MATRIKULAZIORAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAREN ESKAERA AURKEZTEAN, ESPRESUKI ONARTZEN DIRA ONDOKO DATU LAGAPEN HAUEK:

- Neure baimena ematen dut euskaltegiak eskaera hau aurkez dezan Arabako Foru Aldundian, hari erantsitako agiriekin batera, eta Arabako Foru Aldundiko Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza Sailak landu ditzan eskaeran jasotzen diren datu pertsonalak, helduen euskalduntzea sustatzeko laguntza ekonomikoen izapidetzea kudeatzeko eta haiek kontrolatzeko.
- Neure baimen espresua ematen dut, emandako laguntzaren zenbatekoa konpentsatuz gero Arabako Foru Aldundiak niri buruz ebazteke dauzkan betearazte prozeduren ondorioz, Euskararen Foru Zerbitzuak euskaltegiari horren berri eman diezaion, atxikitako diru kopurua adieraziz, eta kopuru hori euskaltegiari itzultzeko konpromisoa hartzen dut.

CON LA PRESENTACIÓN DE SOLICITUD DE AYUDA ECONÓMICA A LA MATRICULACIÓN SE ACEPTAN EXPRESAMENTE LAS SIGUIENTES CESIONES DE DATOS:

- Expreso mi consentimiento para que el euskaltegi presente esta solicitud a la Diputación Foral de Álava, junto con la documentación anexa, y para que el Departamento de Igualdad, Euskera y Gobernanza de la Diputación Foral de Álava trate los datos personales recogidos en la solicitud con la finalidad de gestionar la tramitación y control sobre las ayudas económicas destinadas a incentivar la euskaldunización de personas adultas.
- Manifiesto mi consentimiento expreso a que en caso de que el importe de la ayuda concedida sea compensado como consecuencia de procedimientos ejecutivos pendientes con la Diputación Foral de Álava relativos a mi persona, el Servicio Foral de Euskera comunique al euskaltegi tal circunstancia con indicación del importe retenido y me comprometo a la devolución del importe al euskaltegi.

MATRIKULAZIORAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAREN ESKAERA AURKEZTEAN, ESPRESUKI ONARTZEN DA ONDOKOA:

- Berriaz adierazten dut ez dudala jaso IVAPen aldetik 2025-2026 ikasturtean euskalduntzerako laguntzarik.

CON LA PRESENTACIÓN DE SOLICITUD DE AYUDA ECONÓMICA A LA MATRICULACIÓN SE ACEPTA EXPRESAMENTE LO SIGUIENTE:

- Declaro expresamente que no he recibido ninguna ayuda por parte del IVAP para euskaldunización en el curso 2025-2026.

Orria ■ Hoja 1/3



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Helduen euskalduntzea sustatzeko 2025-2026 ikasturterako laguntza ekonomikoa eskatzeko inprimakia.

2025

Solicitud de ayuda económica destinada a incentivar la euskaldunización de personas adultas, curso 2025-2026

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saila
Euskara eta Gobernu Irekiaren zuzendaritza

Departamento de Igualdad, Euskera y Gobernanza
Dirección de Euskera y Gobierno Abierto

II. ERANSKINA ■ ANEXO II

LAGUNTZAK ESKURATZEKO BALDINTZAK BETETZEN DIRENETZ OFIZIOZ EGIAZTATZEAREN AURKA AGERTZEA (aurka agertuz gero, interesa duenak aurkeztu beharko ditu dagozkion agiriak, deialdiko baldintzak betetzea egiaztatzen dutenak):

☐ Euskararen Foru Zerbitzuak nire nortasun datuak egiaztatzearen aurka nago.

☐ Euskararen Foru Zerbitzuak nire errolatzea egiaztatzearen aurka nago.

OPOSICION A LA COMPROBACIÓN DE OFICIO DEL CUMPLIMIENTO DE LOS REQUISITOS DE ACCESO A LAS AYUDAS (en caso de oponerse, la persona interesada deberá aportar la documentación correspondiente que acredite los requisitos en la convocatoria):

☐ Me opongo a que el Servicio Foral de Euskera compruebe mis datos de identidad.

☐ Me opongo a que el Servicio Foral de Euskera compruebe mi empadronamiento.

BESTELAKO BAIMENAK (interesa duenak nahi izanez gero betetzeko)

☐ Berariaz baimena ematen dut Arabako Foru Aldundiak euskara sustatzeko eginiko komunikazioak jasotzeko

OTROS CONSENTIMIENTOS (rellenar a voluntad de la persona interesada):

☐ Manifiesto mi consentimiento expreso para recibir comunicación de promoción del euskera de la Diputación Foral de Álava.

Euskaltegiaren izena

MATRIKULATUTAKO MAILA/ NIVEL DE LA MATRICULACION	
A2	
B1	
B2	
C1	

MATRIKULA ORDU KOPURUA/ N° HORAS MATRICULACION	
248-400	
401-600	
>600 H	

autoikaskuntza >190 H	
A2	
B1	
B2	
C1	

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen sinadura ■ Firma de la persona solicitante

OHARRA ■ NOTA Matrikulazioarekin batera, inprimaki orria bete behar da eta euskaltegiak dagokion deskontua aplikatuko dio matrikulazio prezioari. ■ Junto con la matrícula, es necesario rellenar el impreso de solicitud. El euskaltegi aplicará el descuento correspondiente al precio de la matrícula.

Orria ■ Hoja 2/3



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Helduen euskalduntzea sustatzeko 2025-2026 ikasturterako laguntza ekonomikoa eskatzeko inprimakia.

2025

Solicitud de ayuda económica destinada a incentivar la euskaldunización de personas adultas, curso 2025-2026

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saila
Euskara eta Gobernu Irekiaren zuzendaritza

Departamento de Igualdad, Euskera y Gobernanza
Dirección de Euskera y Gobierno Abierto

II. ERANSKINA ■ ANEXO II

Oharra (1)

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetze aldera, jakinarazten dizugu zuk ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko T67 EUSKARAREN SUSTAPENA fitxategian sartuko direla. Fitxategi horren tratamenduak Arabako Lurralde Historikoan euskararen erabilera sustatzeko jarduerak kudeatzeko egiten dira. Zure datuen konfidentzialtasuna bermatzen dugu, eta ez zaizkie hirugarrenei jakinarazten lege gaitutako kasuetatik kanpo. Datuak atzitzeko, ezabatzeko, aurkaratzeko eta mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzu DBEOk aitortzen dituen eskubideez baliatzeko. Horretarako, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Bulegora jo beharko duzu (Probintzia plaza 5, PK 01001 Vitoria-Gasteiz - Araba). Informazio gehiago nahi izanez gero: <https://web.araba.eus/eu/tratamenduen-lege-ohar-hedatua>

Nota (1)

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD) y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser incluidos en el fichero T67 PROMOCIÓN DEL EUSKERA titularidad de Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para la gestión de las actividades de promoción del uso del euskera en el Territorio Histórico de Álava. Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente. Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava). Para más información: <http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado>

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	Helduen euskalduntzea sustatzeko diru-laguntzetan erakunde laguntzaile gisa parte hartzeko eskaera (erakunde laguntzaile gisa laguntzen programan parte hartzen duten euskaltegiek bete beharrekoa)
	2025 Solicitud de incorporación como entidad colaboradora en las ayudas económicas destinadas a incentivar la euskaldunización de personas adultas (a rellenar por los euskaltegis que tomen parte en el programa de ayudas como entidades colaboradoras)

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saila
Euskara eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritza

Departamento de Igualdad, Euskera y Gobernanza
Dirección de Euskera y Gobierno Abierto

III ERANSKINA ■ ANEXO III

Eskaera zk. ■ N° Solicitud

Eskaera data ■ Fecha
Solicitud

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la
Administración)

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE ⁽¹⁾

Euskaltegiak betetzeko ■ A rellenar por el euskaltegi

Identifikazio zk. ■ N°
identificativo

Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■
Núm.

Letra
■
Hizkia

Eskra. ■
Escal.

Solairua
■ Piso

Aldea ■
Mano

Herrialdea ■ País

Lurralde Historikoa
■ Territorio Histórico

Udalerrria ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P. K. ■
C. P.

Telefona ■
Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Posta elektronikoa ■ Correo
electrónico

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria ■ Documento
identificativo

☐ NAN ☐ AIZ ☐ Besteren
DNI NIE bat

Izena ■ Nombre

Identifikazio zk. ■ N°
identificativo

Lehen abizena ■ Primer
apellido

Sexua ■ Sexo

☐ Emakumea ☐ Gizona
Hombre

Bigarren abizena ■ Segundo
apellido

Protokolo zk. ■ N° protocolo

Data ■ Fecha

Notario ■ Notario

Orria ■ Hoja 1/5

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	Helduen euskalduntzea sustatzeko diru-laguntzetan erakunde laguntzaile gisa parte hartzeko eskaera (erakunde laguntzaile gisa laguntzen programan parte hartzen duten euskaltegiek bete beharrekoa) 2025 Solicitud de incorporación como entidad colaboradora en las ayudas económicas destinadas a incentivar la euskaldunización de personas adultas (a rellenar por los euskaltegis que tomen parte en el programa de ayudas como entidades colaboradoras)
--	--

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saila
Euskara eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritza

Departamento de Igualdad, Euskera y Gobernanza
Dirección de Euskera y Gobierno Abierto

III ERANSKINA ■ ANEXO III

Telefona ■
Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Posta elektronikoa ■ Correo
electrónico

JAKINARAZPENAK ■ NOTIFICACIONES

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, jakinarazpen elektronikoak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez egingo dira. Hartzaileek egoitza elektroniko horretako "nire jakinarazpenak" atalean eskuratu ahal izango dituzte.

Jakinarazpen elektronikoak eskuratu ahal izango dituzte hartzaileek eta/edo, hala badagokio, haiek gaitutako pertsonak.

Erakunde eskatzaileak gailu elektroniko bat eta/edo helbide elektroniko bat identifikatu ahal izango du, abisuak bidaltzeko balioko duena, egoitza elektronikoan jakinarazpen bat eskuragarri jarri dela jakinaraziz. Hala ere, ohar hori egiten ez bada ere, jakinarazpena guztiz baliozkoa izango da:

Conforme a lo previsto en el artículo 43.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las notificaciones electrónicas se practicarán por el sistema de comparecencia en sede electrónica de la Diputación Foral de Álava. Las personas destinatarias podrán acceder a ellas en el apartado "Mis notificaciones" de dicha sede electrónica.

Podrán acceder a las notificaciones electrónicas las personas destinatarias de las mismas y/o, en su caso, las personas habilitadas por ellas.

La entidad solicitante podrá identificar un dispositivo electrónico y/o una dirección de correo electrónico que servirán para el envío de los avisos informándole de la puesta a disposición de una notificación en la sede electrónica. No obstante, la falta de práctica de este aviso no impedirá que la notificación sea considerada plenamente válida:

Posta elektronikoa ■ Correo Electrónico

Telefono mugikor zenbakia ■ Número de teléfono móvil

Orria ■ Hoja 2/5



Solicitud de incorporación como entidad colaboradora en las ayudas económicas destinadas a incentivar la euskaldunización de personas adultas (a rellenar por los euskaltegis que tomen parte en el programa de ayudas como entidades colaboradoras)

Departamento de Igualdad, Euskera y Gobernanza
Dirección de Euskera y Gobierno Abierto

III ERANSKINA ■ ANEXO III

Aurretik Arabako Foru Aldundiaren diru-sarrerarik jaso ez bada edo banku-helbideratzearen datuak aldatzen badira soilik bete beharko da. ☐ Complimentar únicamente en caso de no haber percibido anteriormente ningún ingreso de la Diputación Foral de Álava o en caso de modificación de los datos de la domiciliación bancaria.

[illegible]

(FINANTZA ENTITATEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA)	(ESKATZAILEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la persona SOLICITANTE)
Finantza entitatearen adostasuna (sinadura eta zigilua) ■ Conforme entidad financiera (firma y sello) (e)ko.....aren.....(e)an En....., a..... de.....de.....	Hirugarren interesdunaren sinadura edota entitatearen zigilua ■ Firma de la persona interesada y/o sello de la entidad interesada (e)ko.....aren.....(e)an En....., a..... de.....de.....
Finantza erakundeak ZIURTATZEN du lehen adierazitako banku kontua “ESKATZAILEA” atalean ageri den pertsona fisiko edo juridiko interesdunaren izenean eta IFZarekin dagoela irekita, eta pertsona interesdun hori kontuaren titular gisa ageri dela La entidad financiera CERTIFICA que la cuenta bancaria anteriormente señalada figura abierta al NIF y nombre de la persona física o jurídica interesada que figura en el apartado “SOLICITANTE”, y que dicha persona interesada figura como titular de la cuenta.	ADIERAZI BI AUKERETAKO BAT: ☐ Alta eskatzen da Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan, ESKAERA HONI IFZ-REN FOTOKOPIA ERANTSITA ☐ Bankuko datuak eguneratzea eskatzen da, dagoeneko altan egonik Arabako Foru aldundiaren hirugarren moduan INDICAR UNA DE LAS DOS OPCIONES: ☐ Se solicita el alta como Tercero de la Diputación Foral de Álava, para lo cual SE ADJUNTA FOTOCOPIA DEL NIF A LA PRESENTE SOLICITUD ☐ Se solicita la puesta al día de los datos bancarios como Tercero de la Diputación Foral de Álava va dado de alta

Orria ■ Hoja 3/5



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Helduen euskalduntzea sustatzeko diru-laguntzetan erakunde laguntzaile gisa parte hartzeko eskaera (erakunde laguntzaile gisa laguntzen programan parte hartzen duten euskaltegiek bete beharrekoa)

2025

Solicitud de incorporación como entidad colaboradora en las ayudas económicas destinadas a incentivar la euskaldunización de personas adultas (a rellenar por los euskaltegis que tomen parte en el programa de ayudas como entidades colaboradoras)

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saila
Euskara eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritza

Departamento de Igualdad, Euskera y Gobernanza
Dirección de Euskera y Gobierno Abierto

III ERANSKINA ■ ANEXO III

ESKATZEN DU/SOLICITA

Helduen euskalduntzea sustatzeko diru-laguntzen kudeaketan erakunde laguntzaile gisa sartzeara/La incorporación como entidad colaboradora en la gestión de las ayudas económicas destinadas a incentivar la euskaldunización de personas adultas.

(*Tokia eta data* ■ *Lugar y fecha*)

Ordezkararen sinadura ■ **Firma del/la representante**

ERANTZUKIZUNPEKO DEKLARAZIOA

Adierazten dut erakunde laguntzaile izateko deialdian eskatzen diren baldintzak betetzen ditudala, eta baimena ematen diot Euskararen Foru Zerbitzuari ofizioz egiazta dezan honako baldintza hauek betetzen direla:

- HABEK homologatzea eta dagokion erregistroan inskribatzea.
- Ordezkatzen dutan erakundeak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

Era berean, berdintasunaren arloko araudia betez, hau adierazten dut:

- Ez ordezkatzeko erakundeak, ez ordezkatzeko erakundearen gobernu- edo administrazio-organismoetako kide den pertsona juridiko edo erakunderen batek, onarpen-prozesuetan edo funtzionamenduan sexuagatiko zuzeneko edo/eta zeharkako diskriminazio-ekintzak egiten dituenik, DLOren 13. artikuluan eta Euskadiko Berdintasunerako Legearen 24. artikuluan (2) xedatutakoaren arabera.

- Ez ordezkatzeko erakundeak, ez eta haren gobernu- edo administrazio-organismoetako kide den inork ere, ez duela zigor administratiborik edo penarik jaso abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bateginetik eratorritako sexu-bereizkeriatatik eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arau-hausteengatik.

DECLARACIÓN RESPONSABLE

Declaro que cumplo los requisitos exigidos en la convocatoria para ser entidad colaboradora y autorizo al Servicio Foral de Euskera a realizar de oficio la comprobación del cumplimiento de los siguientes requisitos:

- Homologación por HABE e inscripción en el correspondiente registro.
- Estar al día en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social de la entidad a la que represento.

Asimismo, en cumplimiento de la normativa en materia de igualdad DECLARO:

- Que ni la organización a la que represento, ni persona jurídica o entidad alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de la entidad a la que represento realizamos actos de discriminación directa y/o indirecta por razón de sexo en los procesos de admisión o en el funcionamiento de conformidad con lo estipulado en el artículo 13 de la LGS y artículo 24 (2) de la Ley de Igualdad de Euskadi.

- Que ni la asociación u organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de sus órganos de gobierno o administración, han sido sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Texto Refundido de la Ley de Infracciones y Sanciones en el Orden Social, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto.

Orria ■ Hoja 4/5



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Helduen euskalduntzea sustatzeko diru-laguntzetan erakunde laguntzaile gisa parte hartzeko eskaera (erakunde laguntzaile gisa laguntzen programan parte hartzen duten euskaltegiek bete beharrekoa)

2025

Solicitud de incorporación como entidad colaboradora en las ayudas económicas destinadas a incentivar la euskaldunización de personas adultas (a rellenar por los euskaltegis que tomen parte en el programa de ayudas como entidades colaboradoras)

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saila
Euskara eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritza

Departamento de Igualdad, Euskera y Gobernanza
Dirección de Euskera y Gobierno Abierto

III ERANSKINA ■ ANEXO III

Oharra (1)

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetze aldera, jakinarazten dizugu zuk ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko T67 EUSKARAREN SUSTAPENA fitxategian sartuko direla. Fitxategi horren tratamenduak Arabako Lurralde Historikoan euskararen erabilera sustatzeko jarduerak kudeatzeko egiten dira. Zure datuen konfidentialtasuna bermatzen dugu, eta ez zaizkie hirugarrenei jakinarazten legez gaitutako kasuetatik kanpo.

Datuak atzitzeko, ezabatzeko, aurkaratzeko eta mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzu DBEOk aitortzen dituen eskubideez baliatzeko. Horretarako, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Bulegora jo beharko duzu Probintzia plaza 5, PK 01001 Vitoria-Gasteiz - Araba). Informazio gehiago nahi izanez gero:

<https://web.araba.eus/eu/tratamenduen-lege-ohar-hedatua>

Oharra (2)

Zuk emandako banku datuak hirugarrenen eta interesdunen fitxategian erregistratuko dira, zeina Administrazio honen titularitatekoa baita, aurrekontu gauzatzeari eta aurrekontuz kanpoko gauzatzeari dagozkion eragiketen izapideak egiteko. Atal honetan emandako datuak ez dira tratatuko edo komunikatuko, baldin eta lehenago egindako ordainketen ondorioz, dagoeneko alta eman bazaie identifikazio eta banku datuei, berriro ere kobratzea hautatzeko eman direnei

Nota (1)

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD) y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser incluidos en el fichero T67 PROMOCIÓN DEL EUSKERA titularidad de Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para la gestión de las actividades de promoción del uso del euskera en el Territorio Histórico de Álava.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava). Para más información:

<https://web.araba.eus/es/aviso-legal-ampliado>

Nota (2)

Los datos bancarios facilitados por usted se registrarán en el Fichero de Terceros e interesados titularidad de esta Administración para realizar la tramitación de operaciones de ejecución presupuestaria y extrapresupuestaria. No se tratarán ni comunicarán los datos cumplimentados en este apartado si como consecuencia de pagos realizados con anterioridad, ya estuvieran dados de alta los datos identificativos y bancarios por los que de nuevo se optara para el cobro.

Orria ■ Hoja 5/5